



EMANALDI KONTRATUA, KONTRATU DISKOGRAFIKOA ETA ARGITALPEN KONTRATUA

**Sympathy©
for the Lawyer**

**SYMPATHYFORTHELAWYER-EK EGINA
2024KO MAIATZA**

AURKIBIDEA

01 SARRERA

02 EMANALDI KONTRATUA

03 KONTRATU DISKOGRAFIKOA

04 ARGITALPEN KONTRATUA

01 SARRERA

Musikaren industria konplexuan, kontratuak dira artisten, diskoetxeen, sustatzaileen eta negozio honetako beste funtsezko eragile batzuen arteko harremanen oinarria. Egile eskubideak arautzen dituen argitalpen kontratu batetik hasi eta album baten banaketa eta sustapena bultzatzen dituen akordio diskografiko batera, zuzeneko emanaldietarako funtsezko kontratuak ahaztu gabe, kontratu mota bakoitzak eginkizun garrantzitsua dauka parte hartzen duten alderdi guztien interesen babes eta arrakastan.

02 EMANALDI KONTRATUA

Musika emanaldiaren kontratuak arautzen ditu ikuskizun publikoak egiteko behar diren zerbitzu artistikoak, kasu honetan, musika ekitaldietakoak, hots, kontzertu zein musika jaialdietakoak. Legezko baldintza, Rider eta bestelako klausula guztiak behar bezala definitzeak gatazkak saihestuko ditu eta lagungarria izango da sustatzaileak kontzertu eta jaialdietan agertu ohi diren arazoei aurrea har diezaien.

Horretarako, berariaz zehaztu behar diren zenbait funtsezko klausula daude, eta klausula horien negoziazioaren mende egongo dira artista, talde eta/edo management taldearekiko harreman ona eta ekitaldiaren funtzionamendu zuzena.

02 EMANALDI KONTRATUA

Alderdien definizioa: sustatzaileak eta artistak

Alde batetik, sustatzailea dago, ekitaldiaren arriskua eta erantzukizuna bere gain hartzen dituen. Ezinbestekoa da sustatzaile mota desberdinak bereiztea: pertsona fisiko edo juridikoak, erakunde publiko edo pribatuak. Bestalde, artista edo musika taldea dugu, bere(n) management agentziarekin. Funtsezkoa da kontratua sinatzen duen alderdiak artista edo taldearen ordezkaritza eskubideak dituela ziurtatzea, bestela, azken horiekin negoziatu beharko da zuzenean.

Esklusibotasuna eta kartelaren osaera

Lurraldeko esklusibotasuna oso garrantzitsua da sustatzailearentzat, batez ere jaialdien kasuan. Klausula horren negoziazioak eragina izaten du artistaren ordainsarian eta ekitaldia egiten den probintzia edo autonomia erkidegoko esklusibotasunaren inguruko baldintzak ezar ditzake. Horrez gain, kartelaren osaera aldez aurretik adostu beharko da, artistaren management taldearekin gatazkarik ez izateko. Onena da kartelaosatzea artista edo musika taldeen ordainsarien arabera, edo beren abestiek urtean zehar ustiapen digitalean izandako inpaktuaren arabera. Co-headliner edo eguneko headliner delakoaren figura ere erabili ohi da klausula hau negoziatu eta kalibratzeko.

02 EMANALDI KONTRATUA

Emanaldiaren ordutegia eta Rider teknikoa

Jaialdien kasuan, funtsezkoa da emanaldiaren ordutegia negoziatzea. Management taldeek 22:00 eta 02:00 arteko ordutegiak eskatzen dituzte, salbuespenak salbuespen. Ordutegiak antolatzeke hoberena etorriko den publikoaren eta artistek publiko horrengan duten inpaktuaren arabera egitea izaten da, betieren ekoizpen baldintzak kaltetu gabe.

Horrez gain, Rider teknikoa, artistaren behar teknikoak zehazten dituen, kontratuarekin batera negoziatu eta sinatu behar da, ekitaldiaren egunean dena argi egon dadin. Oso garrantzitsua da alderdi tekniko guztiak modu argi eta xehatua ezartzea.

Errepertorioa kudeatzea eta eskubideak lagatzea

Errepertorioaren kudeaketa derrigorrezkoa da legez, eta eskubideen kudeaketa erakundeen tarifetan eragina izan dezake. Setlist zerrenda aldezturik bidaltzeak deskontuak lortu ditzake tarifa horietan. Era berean, jaialdia zuzenean emango bada edo grabaketa Interneten ustiatuko bada, emanaldi kontratuan zehaztu behar da setlist zerrendak nahikoa aurrerapenarekin bidaliko direla, sustatzaileak dagozkion argitalpen lizentzia eta lizentzia fonografikoak kudeatzeko denbora izan dezan.

Gainera, artistaren izen artistikoaren, irudiaren eta markaren erabilera arautzen duten eskubideak lagatzeko klausulak negoziatu behar dira, ekitaldiaren sustapena egiteko.

02 EMANALDI KONTRATUA

Ordaina, babesletzak eta publizitatea

Artista edo musika taldearen ordainsaria kontratua gauzatu aurretik negoziatzen da; beraz, ez da gatazkatsua izaten, ordainketa epeak bete ez badira salbu. Zentzu horretan, sustatzailearentzat onargarriak diren zenbatekoak ezartzea gomendatzen da, eta zehatz-mehatz adieraztea ordainsariak barne hartzen dituen gastuak, sustatzaileak estaliko dituen gastu gehigarriak eta sustatzaileak inola ere estaliko ez dituen gastuak.

Ekitaldietarako babesletzei dagokienez, artistek eta beren taldeek nahiago izaten dute akordio horiek ekitaldiaren aurretik adostea. Hala ere, gerta liteke marka espezifikoekin lotura zuzenik agertu nahi ez izatea. Hori konpontzeko, oreka bilatuko da artistaren erosotasunaren eta markekiko lankidetzaren artean. Sarritan, ekitaldiko babesleekiko zuzeneko lotura pertsonala saihesten duten klausulak adosten dira. Bestela, babesleek lortutako diru sarreretan partaidetza bat ematea adostu daiteke, artistaren konpentsazio nagusiaren barne.

Merchandisingaren inguruan, artistak kontzertu edo jaialdiaren esparru barruan saltzen duen merchandisingarekin lortzen dituen diru sarreretan sustatzaileari partaidetza bat ematea itundu daiteke. Portzentaje hori % 10ekoa izaten da gutxienez.

02 EMANALDI KONTRATUA

Erantzukizunak eta segurtasun plana

Ezinbestekoa da alderdi bakoitzaren erantzukizunak definitzea ekitaldian gerta litezkeen kalte material eta giza kalteetarako. Sustatzaileak segurtasun plan egoki bat duela bermatu beharko du, erantzukizunaren inguruko muga argiak ezartzen dituen. Horrez gain, erantzukizun zibileko aseguruari buruzko klausulak ezar daitezke artistarentzat eta bere taldearentzat.

Bertan behera uztea eta kontratua ez betetzea

Bi alderdien interesak babesten dituzten klausulak ezarri behar dira, kontratua betetzen ez den kasuetarako. Sustatzaileak ordainsaria itzultzea eta kalte eta galeretarako ordaina negoziatu ditzake artistak kontratua urratzen badu. Ezinbesteko kasuetarako klausulak ere kontuan hartu behar dira.

Legeria eta kontratua sinatzea

Kontratuak artista atzeritarrekin sinatzen direnean batez ere, zenbaitetan, artistek beren kontratu zirriborroa planteatzen dute eta bertan adierazten da legeria eta jurisdikzio aplikagarriak beren jatorrizko herrialdekoak izango direla. Klausula horiek saihestu eta aldatu egin behar dira, epaitegietara eraman beharreko auzirik egotekotan, Espainiako legeria eta jurisdikzioa aplikatuko direla ziurtatzeko.

Azkenik, kontratuaren sinadura prozesu argi eta burutua izan beharko da, alderdiren baten sinadura falta delako kontratua indarrean ez dagoen egoerak gertatzea ekiditeko.

03 KONTRATU DISKOGRAFIKOA

Kontratu diskografikoa funtsezkoa da musikaren industrian eta, askotan, kezka eragiten die musikariei. Legezko dokumentu horrek arautzen du artistaren eta diskoetxearen arteko harremana, bi alderdien betebeharrak eta eskubideak zehaztuta. Gaur egun, formula horretarako alternatibak daude -lizentzia kontratuak, banaketa kontratuak edo joint venture kontratuak- eta gero eta maizago erabiltzen dira autoedizioa baliatzen duten artistekin edo diskoetxe independenteen arteko lankidetzan.

Aurretiko negoziazioa

Kontratua idatzi aurretik, funtsezko alderdiak adostu egin behar dira, hala nola kontratuaren iraunaldia, disko kopurua, sustapen estrategiak eta portzentaje ekonomikoak. Akordio horiek aurrekontratu edo asmo akordio batean islatu behar dira, etorkizunean gaizkiulertuak saihesteko.

Alderdiak eta kontratuaren objektua

Kontratua artistaren (bakarka edo musika taldean) eta produktore fonografiko edo diskoetxearen artean sinatzen da. Garrantzitsua da artista interpretea eta abestien egilea desberdintzea, rol bakoitzak kontratu jakin bat behar baitu. Kontratuak diskoetxeari lagatzen dizkio, eskusiban, artistaren grabaketen erreprodukzio, jendaurreko komunikazio eta banaketa eskubideak. Artistak duen grabaketetan parte hartzeko betebeharra ere zehazten du.

03 KONTRATU DISKOGRAFIKOA

Ordainsaria eta royalty-ak

Konpentsazioa grabaketen (master) ustiaketarekin lortutako diru sarreren gaineko portzentaje bat izaten da, eta salmenta moten (Internetekoak, fisikoak) eta diru sarreren bolumenaren arabera alda daiteke. Hona hemen adibide bat: streaming-etik datozen diru sarreren % 20, salmenta fisikoen % 10, 10.000. kopiara arte, eta salmenta fisikoen % 15 10.001. kopiatik aurrera. Zenbaitetan, diskoetxeak aurrerakin bat eskaintzen du etorkizuneko royalty-en kontura. Ezinbestekoa da argi eta garbi definitzea artistaren ordainsaritik kenduko diren kostuak.

Ustiaketa modalitateak eta grabaketa konpromisoa

Grabaketen ustiaketa modu guztiak adierazi behar dira kontratuan, horren barne direla salmenta fisiko zein digitalak (streaming, deskargak). Materialaren argitalpen fisikorako baldintzak ere adostu behar dira.

Artistak kontratuaren iraunaldian zehar disko kopuru jakin bat grabatzeko konpromisoa onartuko du, aldez aurretik definitutako ezaugarriekin. Konpromiso hori arrakasta komertzialaren maila zehatz baten mende egon daiteke (aurreko merkaturatzeen diru sarrerak edo datuak).

03 KONTRATU DISKOGRAFIKOA

Esklusibotasuna eta diskoetxearen betebeharrak

Kontratuak esklusibotasun klausula bat izan ohi du eta, horren arabera, artistak ezingo ditu obra berak beste diskoetxe batekin grabatu epe jakin batean zehar, oro har, 20 urtez. Klausula horrengatik, hain zuzen ere, itxaron behar izan du 10 urtez Taylor Swiftek bere obrak berriro grabatzeko. Esklusibotasun horrek barne har ditzake ere artistak beste musikari batzuen grabaketetan edo zuzeneko emanaldietan parte hartzea.

Diskoetxeak kontaktuak, inbertsioa eta orientazioa eskaini behar dizkio artistaren karrerari, sustapen eraginkorra bermatzeaz gain. Oso garrantzitsua da musikariek diskoetxearen kaudimena eta konpromisoa behar bezala aztertzea. Arrakasta ez da bakarrik salmentekin neurtzen; publiko egokiarengana iristeko gaitasuna ere kontuan hartu behar da.

Aurrekontu txikia duten zenbait diskoetxe txikik sekulako ahalegina egiten dute beren artisten alde. Aldiz, badira aurrekontu potoloak dituzten beste batzuk, oso kudeaketa ona egiten ez dutenak. Horrengatik, garrantzitsua da diskoetxeak eskaintzen duen balio erantsia ere kontuan hartzea, grabaketa estudioa eta marketin kanpainak ordaintzetik haratago doana.

03 KONTRATU DISKOGRAFIKOA

Irudi eta marka eskubideak

Diskoetxeak, sustapen jardueretan, artistaren irudia eta izena erabiltzeko baimena ere kontratuaren barne egon daiteke. Zenbait kasutan, kontuz, 360 kontratuen bidez kudeatzen da hori, hau da, diskoetxeari artistaren karreraren alderdi guztien kontrola ematen diotenak.

Kontratuaren iraunaldia eta suntsiarazteko arrazoiak

Oro har, bi eta bost urte arteko iraunaldia izaten dute, album kopuru jakin bat grabatzeko konpromisoarekin batera. Dena den, beti egoten da askatasun gutuna negoziatu eta kontratua aurrez suntsiarazteko aukera, edo diskoetxea kontratuan onartutako betebeharren bat betetzen ari ez den aztertzeko aukera. KONTUZ, kontratua aurrez suntsiarazi nahi badugu, diskoetxeak itzultzeke dagoen aurrerakinaren zatia itzultzea eskatuko digu.

Kontratuak suntsiarazte aurreraturako arrazoi espezifikoak zehaztu behar ditu, esaterako, salmenta edo marketin helburuak ez betetzea. Diskoetxeak edo artistak/musika taldeak bere betebeharrak betetzen ez baditu, kontratua suntsiarazi ahalko da ere.

04 ARGITALPEN KONTRATUA

Argitalpen kontratuak, oro har, egile edo konpositorearen zenbait eskubideren lagapena arautzeko xedea izaten du, argitaratzaile baten alde, obra erreproduzitu edo banatzeko aukera izan dezan. Egileak kontraprestazio ekonomiko baten truke lagatzen ditu eskubideak eta argitaratzailea da obra argitaratzearen arriskuak bere gain hartzen dituen. Musikaren esparruan, argitaratzailea izaten da batik bat konpositore baten bere obren gaineko eskubideak ustiatu eta kudeatzeaz arduratzen dena. Argitaratzaile musikaren eginkizunak betetzen dituzten konpainia asko daude.

Egileak lagatzen dituen eskubideak jarraian adierazitako ustiaketa eskubideak dira (eskubide moralak ez dira lagatzen):

1. Obra erreproduzitzeko eskubidea
2. Obra banatzeko eskubidea
3. Jendaurreko komunikazio eskubidea

Erreprodukzio eskubidea baliatzen da obrak euskarri fisiko batean finkatzeko. Bestalde, banaketa eskubidea behar da obra publikoaren eskura jartzeko formatu ukigarri batean.

Ondorioz, esan daiteke argitaratzailea dela musika obren ustiaketaz arduratzen den pertsona fisiko edo juridikoa. Musikaren sektorean, ohikoena da argitaratzaileak diskoetxe bati baimena ematea grabaketa egiteko (finkatze eskubidea) eta, ondoren, diskoa erreproduzitu eta banatzeko. Gerta liteke disko bat osatzen duten abestien eskubideak argitaletxe desberdinenak izatea.

04 ARGITALPEN KONTRATUA

Musika argitaratzeko kontratuaren edukia

Hauek dira argitalpen kontratu baten nahitaezko betekizunak:

- Formalizazioa derrigorrez idatziz egitea;
- Eskubideen lagapenak izaera eskusiboa duen ala ez argitzea;
- Lagapenaren lurralde eremua zehaztea;
- Argitalpen bakoitzaren gehieneko eta gutxieneko konposizio kopurua;
- Banaketa modua zehaztea;
- Egilearen ordainsaria;
- Argitaratzeko edo zirkulazioan jartzeko epea;
- Egileak entrega egiteko epeak.

Argitalpen kontratua idatziz egiten ez bada edo argitaratuko den ale kopuruari buruzko edo egilearen ordainsariari buruzko klausularik ez badu, kontratua baliogabea izango da.

Argitalpen kontratua ez da egokia etorkizuneko obretarako, enkarguz egindako obretarako edo aldian behingo argitalpenekin egiten diren lankidetzetarako. Kasu horietan, beste kontratu mota batzuk erabili behar dira, hala nola obra enkargatzeko kontratua edo lankidetzaren kontratua, egoera bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen baitira. Hala ere, maiz gertatzen da enkarguz egindako obra bat aurretiazko kontratu batean araututa egotea, ondorengo argitalpen kontratuaren truke jasoko den aurrerakina zehazten duena.

04 ARGITALPEN KONTRATUA

Musika argitaratzailearen betebeharrak

Argitalpen kontratuaren legezko erregulazioak alderdien zenbait betebeharrak ezartzen ditu ere. Alde batetik, argitaratzaileak betebeharrak hauek izango ditu:

- Obra adostutako moduan erreproduzitzea, egilearen baimenik gabeko aldaketarik egin gabe.
- Egilearen izena adieraztea.
- Obra ezarritako epean eta baldintzetan banatzea.
- Obrak etengabeko ustiaketa eta sektorearen arabera hedatze komertziala izango dituela ziurtatzea.
- Egileari adostutako ordainsaria ordaintzea eta, proportzionala bada, urtean behin gutxienez, dagokion likidazioa ematea.

Bestalde, hauek dira egilearen betebeharrak:

- Argitaratzaileari argitaratuko den obra entregatzea, erreproduzitzeko forma egokian eta adostutako epe barruan.
- Argitaratzailearen aurrean obraren egiletzaren eta originaltasunaren erantzukizuna hartzea, eta laga diren eskubideen baliatze baketsuarena ere.

Argitaratzaileak egileari ordaindu beharko dion ordainsaria obrak sortutako diru sarrerekiko proportzionala izango da, bi alderdien artean adostutako portzentajearen arabera. Dena den, zenbait kasutan, egileari zenbateko finkoekin ordaintzea baimendu daiteke, honenbesteko prezioan.

04 ARGITALPEN KONTRATUA

Musika argitaratzeko kontratuaren espezialitateak

Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 71. artikulua zenbait espezialitate zehazten ditu musika obrak argitaratzeko kontratuarentzat. Lehenago esandako moduan, musika obrak argitaratzeko kontratuetan, egileak jendaurreko komunikazio eskubidea ere lagatzen du. Jendaurreko komunikazioak dira pertsona talde bati obrarako sarbidea ematen dieten ekintza guztiak, aurretiaz inolako alerik entregatu gabe. Horren barne, argitaratzailea arduratuko litzateke musika obraren jendaurreko errepresentazioa baimentzeaz, irrati edo streaming zerbitzu bidezko emisioa baimentzeaz, etab. Beraz, logikoa da musika argitaratzailea, baimen edo lizentzia bidez, abestiak hedatzeko ahaldunduta egotea, formatu fisiko (LP, CD,...) bidezko banaketaz gain, bai sustapen xedeetarako zein kontzertu eta salmentarako (formatu digitala) ere.



musikabulegoa.eus